

## MENDIKO BEZERO DIRUDUNA

Egilea: Mugarriluze

Izugarrizko zalaparta dator goitik, zerutik alegia, Himalaia mendilerroan, 5.364 metroko goratasunean, elur-gune eta harkaitz anabasaren erdian kokatutako behin-behineko kanpalekuan bakean zegoen jendea asaldatzera. Hantxe dator helikopteroa, helizeen jirabira zaratatsurekin, Txomolungma, Sagarmatha, Everest edo dena delako menditzarra Nepal aldetik igotzeko ezinbesteko geralekua den hegoaldeko oinarrizko kanpamenturantz. Erraietan bidaiari handikia ekarririk, hegazti metalikoa pixkanaka jaitsi eta zabuka hurreratu da lurrera, askotariko tamainak eta margoak dituzten kanpin dende osatutako mila biztanleko herrixkan dauden atzerriko mendizaleei nahiz bertako xerpa estonatupei haize ufada bortitzak eta elur hautsa jaurtiz. Tramankulua aldirietako zelai bateko elur geruzan burrunba handiz pausatu eta berehala, atea irekitakoan han agertu da hirurogei bat urteko gizon mardula. Bi metroetatik ez da urruti ibiliko, azalzuria, begi-urdina eta ilehoria da, The North Face marka ospetsuko mendi arropaz jantzirik goitik behera, Estatu Batuetako bandera zuri-gorri-urdin izarduna josita duen bisera eta betaurreko ilunak ipinita. Bere buruaz harro dagoenaren jarreraz, erabat sinetsita dago goi mailako erronka gaindituko duela, hots, 8.848 metro luze den munduko mendirik altuenaren tontorra zapaltzea, ahal balitz oxigenoz hornitutako botilarik erabili gabe. Honaino ekarri duen helikopteretik beheratuta, gizonkoteak inguruko mendi mazela eta erpin elurtu sarriek eskainitako paisaia xarmanta xixt batez miretsi, arnasa sakon hartu, eta ondoren hamaika olana koloretsuz eratutako etxolategian paratu du arreta, kanpin denda mordoaz gain haizeak barreiatzen dituen otoitzak ei diren oihal zati eskegiak, berdeak, horiak, urdinak nahiz gorriak, eta herrialde ezberdinetako banderak, gehienak ezezagunak, ikusteko. Hango turista ale zarpailei

erreparatu die hurrena, errukiz ia, autobusean amildegi beldurgarriek mehatxatutako eta zuloz minatutako errepide petrala jasan ostean, sekulako motxila astunak bizkarrean egunak emango baitzituzten ilaran oinez honaino iristeko korritu beharreko bidezidor eskas lokaztuetan, hotza eta euria pairatzen. Eta aurki gizajoek mendiko aldapa piko elurtu edo izoztuei ekin beharko diete gainera, daborduko leher eginda daudela. Bera ez ordea, gaur ortzi oskarbia eta haize leuna egonik airetik etorri da artez honaino, eroso eta alferreko nekerik gabe. Orain ari dira laguntzaileak haren ondasunak eta materiala helikopterotik erauzten, fardel gehienak aldeztatik bidaliak zituzten arren. Dendak eta barruko gehienak antolatuta dagoeneko, sukaldariak laster prestatuko du otordu oparoa, erreserbako ardo ona, whisky botila, Kuban eskuz ekoiztutako habano apartekoak eta guzti. Zeren horretarako ordaindu du, ederto ordaindu ere, baina dirua ez da arazoa, ahal duenak ahal du eta gainerakoak hor konpon, ze demontre! Izan ere, gizona ziur dago lerrunak daudena giza askazien artean, ageriko errealitatea da hori bere irudiko, antzinarotik gaurdaino iraun duen Indiako kasta-sistema sonatua adibide ezin hobea izanik, eta bera goren gizarte mailakoa izan da jaino zen mementotik, horretan ez dago zalantzarik. Ezen Bush abizenekoen leinuaren kate distiratsuko katebegi sendoa da, barren eta izarren nazio loriatsuko bi presidente ohiak diren aita-semeen senide urrun baina duina, urte beltza den petrolioaren negozioan galanki aberastua. Donald Bush, izen ederra zinez, ikasle sasoian hainbat mukizu ergelek adarra jotzen zioten arren School elitista hartan, ahoskera ulergaitza zuen Donald Duck marrazki bizidunetako ahatearen homonimoa izateagatik lotsarazteko. Baina begira orain, denboraren poderioz bera goian eta haietako franko behean daude, lupetzan kasik, sendiaren ondarea eralgi izanaren ondorioz lanpostu ziztrinetan higitzen eta zahartzen. Zorabio batzuen ondotik sendagileek atsedena edo oporrak hartzeko gomendioa luzatu zioten,

estresari aurka egiteko eta tentsioa kontrolatzeko, azken finean egonean eta potrojorran gera zedin gura zuten. Bera gizon ekintzailea da ostera, denbora ongi baliatzen duena uneoro, urregorriaren balioa izanik etekina atera behar baitzaio, jo eta su lan eginez ez da heldu bada duen estatusa erdiestera? Eta oraingoan desafio hori aukeratu du, aspaldiko partez astia duenean emazte pinpirina etxean lagata abioiz hegaldatu eta Everest menditzarra eskalatzeko profitatuko du, gizaki aintzatsuen lorpen miragarrien liburukotean bere izena hizki larri urrekarez idazteko, Zelaanda Berriko Edmund Hillary mitikoak mila bederatziehun eta berrogeita hamahirugarren urtean sinatutako balentriari segida emanez. Aholkularien aburuak kontuan hartuz gidari enpresa bat kontratatu du horretarako, dirutza ordainduta jakina, segurantziagatik eta baimen izapideak errazteko, eskarmenturik ez baitu Himalaiako jardueretan, baina edozertarako gai da gizona, odolean daramatza adorea eta indarrak. Etxolategirantz urrats irmoz doala gizonezko batzuk hurbildu zaizkio, espedizio komertzialeko gidariak hain zuzen. Bostekoa elkarri eskaini eta estutu dute ongietorria emanez, azal-zuridunak dira behintzat, aberkideak, ingelesdunak. Halere badauki morroi eskertuak baino ez direna, ematen dien diruketaren truke tratatuko dutena ondo, edozer egiteko prest egongo dira eskupeko bat opatu orduko. Halako batean, Donald Bushek besoa haietako baten sorbaldan bermatu, irribarrea taxutu eta eskuineko erpurua tentetu du, lagun arrakastatsuen gisara, argazkia egingo diotela ohartzean. Besteak zer esanik ez, enpresakoen aldamenen kanpalekurantz jotzean larruazal ilunkaran bildutakoak bistaratu ditu, piltzarrez beztiturik eta mendiko bota gogorren ordeztu kirol zapata arruntak edo sandaliak oinetan, ile beltz zoldatsua eta ezpainen artean hortz ments nabarmenak dituztela, xerpak izango dira. Baina argalak, txikiak eta itxura makalekoak iruditu zaizkio alajaina, batek daki espedizioko zeregin nekagarriari eusteko kapaz izango

diren. Auskalo ezer entelegatuko dieten eta zer nolako hizkuntza murduskatzen duten, Harri Arotik bilakaerarik izan gabeko bat arean. Abere mantsoen antza igarri die, begirada izukorren gibelean adimen urriko gizabanako atzeratuak, garatu bakoak eta heziketarik gabeak sumatuz, mendizale arrotzentzat zamaketari jardutea baino ganorazkoagorik egiteko ezgauza. Emakumerik ez dakusa gutxienez, eta hobe horrela, buruhauste iturri izaten baitira haren ustez, ahulak izanik horrelako eremu lakarra ez da aproposa eurentzat, etxean dute umeez erditu eta haiek jagoteko tokia. Eguerdian bazkari legea egin du Donald Bush jaunak mendi enpresaren ordezkariekin, eta jantokitza apailatutako denda erraldoian, jaki gozo joriz atondutako mahai zamauaren baranoan izan dute patxadaz mintzatzeko betarik. Egiaz ez zaizkio gehiegi gustatu han begietsitako gizakumeak, baina bat-bateko iritzia botatzeko bulkada bridatuz adeitsu jokatu du, paradarik izango baitu gerora ere. Izan ere, hippy tankera hauteman die solaskide gazte belarri-gingilak uztaiz apaindutakoei, Larry berrogeita bost urteko arduradun tximatsua barne, marihuana errezaleak izango dira ziurrenik, kultur eta arraza nahasketen aldeko demokratik ausaz. Halaber, haietako batzuk guztiz gizondu gabeko nerabeak begitandu zaizkio, akaso bigunegiak goialdeetako elur, lei eta haizeteekin lehiatzeko, ea gailurrerainoko igoeran trebetasunik erakusten duten. Ordu eta erdiz bazkaltzen eta autuan egon ostean, azkenburukoekin ari direnean bezero diruduna zutundu, eskuan duen xanpain kopa mukurua koilara batez joz isiltasuna eskatu, eta ozen hitz eginez bere asmoen berri eman die bertaratutakoei, zeremoniatsu, uniformedun jeneral batek gudarosteko mendekoei emango liekeen moduan. Biharamun goizean goiz gorantz abiatu nahi lukeela jakinarazi die, altuerako lehenengo kanpamentua xede, bere kalkuluen arabera bospasei egun nahikoak izango baitira helburua lortu eta arrakastaz beheitzeko. Zeren osasuntsu eta sasoi dago bera,

horrela esan die, New Yorkeko gimnasiorik dotoreenetako bateko trepeta metalikoen artean oren andana sartutakoa dela pisu astunak aupatzen eta giharrak bizkortzen, eutsi ahal izango diola mendian zaildutakoagoak diren lantaldeko kideen erritmoari. Hau dena, entzule otzanak arranpalo begiz so eta mutu daudela adierazi du. Larritasunezko estreinako segundoak igarota aitzakia merkeekin ihardetsi diote baina, aurrena oxigeno gabeziara egokitzeko prozesua zorrotz bete beharko duela goietako gaitza eta edemak saihesteko, iragarpenek diotenez eguraldi makurra datorrela eta zuhurrena beheko abaroan itxarotea dela, eraso jo aurretik ibilbideko gune teknikoak soka finkoz ekipatzea komeni dela gaitzurrea murrizteko, materiala prestatzeke dagoela oraindik, xerpekin hondar hari muturrak lotzeko daudela. Egonarria bere dohain ugarietako bat ez izanda, nagikeria seinale haien aitzinean odola irakiten hasi zaio enpresaburu finari. Betondoa zimurtuta erdeinuz begiratu die guztiei, ez baitago ohituta ezezkoak edo estakuruak jasotzera, eta alafede ez zaio jaket aditzen ari dena. Beraz, ezustean garrasika isilarazi ditu denak, dirua ipintzen duenari erabakitzea dagokiola errime jaulkiz, bazter bakartu haietako pepelerdorik pepelerdoenak ere jakingo duenez kontsumitzaileak arrazoia baitu beti. Harriduraz eta ikaraz zipriztindutako istant estu batzuen ondoren umiltasunez hasi zaizkio azalpenak ematen Larry taldeburua eta oturuntzara batutakoen arteko ausartenak. Haren segurtasuna bermatzea dagokiela argudiatu diote, besteak beste ardura horren truk jasotzen dituztela ordaintzen dizkien dolarrak, gailurrera bai baina onik eta ezbeharrrik gabe iritsiko dela ziurtatu behar dutela, baita jaitsiera lasaia ere. Hazpegiak zurrun, gorrotoa islatu dute apika elikatuegi dagoen gizontzarraren begi goriek, nork daki herraren edota irentsitako alkoholaren eraginez gorituta, eta urduritasun ukigarritz bustitako lipar batzuk iraganda, deus erantsi barik aulkia baztertu eta jantokitizat atondutako denda alimalekotik irten da muturtuta.

Arratsaldean, Donald Bush mukerra pasieran ibili da kanpalekuko dendan artean eta ingurumariko muino nahiz estratetan zehar, alderrai eta bakarrik, gogoeta egiten eta gauzak orori adi begira. Halako batean, larre batean bazkatzen ari diren yak arraroak begiztatu ditu, eta txunditu dute behi edo zezenen erako abelgorri hausnarkarien bilo luzeek, horrela hozbero baxuetatik eta haize bafada latzetatik babestuta egongo dira noski. Errepiderik gabeko zonalde idorrotan animalia boteretsuok zama astunak bidezidorretan gora eta behera garraiatzeko darabiltzatela kontatu diote, eta berak ondorioztatu du zentzurik ez duela tontorrerantz xerpa mirrinekin partitzeak, noranzko zuzena hartzea ahalbideretako liekeen GPS bikaina edukitzeaz gain karga pisutsuagoa eramango bailukete piztia bitxiak. Hainbat orduren buruan, ilunduta jada, bezero dirutsuak sukalde-dendan sartu-irten azkarra egin, logelatzat apailatu dioten oihalezko etxolan barneratu, eta inori ezer aipatzeko bizkar-zorro handia janariz, urez, janzkiz eta beharrezko gauzez betetzeari ekin dio. Eskura utzi ditu azpantarrak, kranpoiak eta pioleta ere, eta goiz lotartzeko intentzioa mamurtuz jangela gisa gertatutako denda eskeragan gainontzekoen konpainian afaltzera joan da, jator agertzeko gogorik gabe baina. Hurrengo goizaldean kanpin dendako lo-zakuaren barruko epeltasun goxoan aztoratu du erlojuaren alarma-soinu zoliak. Segituan agondu, kanporako negu arropa lodia jantzi, txokolate zaporeko energia-barratxo bat gosaldu, eta babeslekutik jalgi da, hotz gaiztoaren ausikia nozitzen kopeta-argiaren laguntzaz txangoa hasteko, eguna esnatzeke baitago oraindik. Jasotako aholkuak eta irakurritako artikuluak aintzat hartu beharko ditu, ezin ukatuzkoa baita esperientziarik ez duela zortzi milakoetan, baina zapuztuta dago alde zurretik mamitutako plana geldiarazi edo moteldu beharzagatik. Hortaz bakardadean egon gura du, gizadiarengandik aldendu mutiko ernegatua bailitzan. Ez da Everesteko aurreneko goi kanpamentuaren bila joango baina zeharkaldi

polita osatuko du behinik behin, edo abagunea usainduz gero gertuko erpin deigarriren bat oinperatuko du hobeto. Horrenbestez, han abiatu da behinola eliza arranditsu batean Donald ponte-izenez bataiatutako heroia, satellite bidezko konexioa duen punta-puntako telefono garestia patrikan eta bapo zuzkitutako motxila astuna bizkarrean, zeru sabaiko izar ñirñirkarien eta hodei beltzen zelatapean, bekokiko foku motelaren argitan topatu duen estreinako aldatsean gora sigi-saga, abenturazaleetara jolastera. Hotzez dardarka doa, sudur gorritu hozmindutik mukia dariola, ezpainen artetik lurrun zurixka isuriz eta elurretan oinetako zolen izariko aztarnak utziz, pausoak egin ahala gorputza berotuko duelakoan. Handik zenbait orenetara kezka eta arrangura hedatu dira Everesten hegoaldeko behe kanpamentu ernatu berrian, yanki garrantzitsuaren arrastorik inon egon ez eta bere hainbat traste falta direlako. Maldetan gora menturatu dela barrundatu dute, eta eguraldi adituak zitzuan hurbiltzen ari den ekaitz zitalaz gaztigatu dietenez komeriak dakuskite zeruertzean. Erreskate lanei lotzeko prestaketetan hasi dira agentziako mendizaleak artega, haserre ere bai, batere jaramonik egin ez dien hantuste alu haren xerka arriskuak hartuz jo behar dutelako euren zoria madarikatzen, eta gainera xerpak limurtu beharko dituzte lagun diezaieten. Anartean han doa Donald Bush jauna, kopeta-argia berokiko sakelari gordeta jadanik, aurkitutako xendra korritu ahala altuera etengabe irabazten. Alabaina, ezbaia iradokitzen du bere musuak, eguzki izpien ferekaren zain bazegoen horien zantzurik ez dagoelako, ezen gandu trinkoan murgiltzen den neurrian hozbero gero eta amilduagoak zigortzen du. Behe-laino hezeak orientazioa oztopatzen dio gainera, inguruko mendi hormen eta ibai jariotsuek milaka urtez zizelkatutako haranen erreferentziarik gabe ez dauka garbi non dagoen, eta jarraitzen duen bideak nora daraman ere ez daki. Garaiera hartzen duen heinean afrontua zakartuz doa, hotz sentipena areagotuz, gupidarik gabe

astintzen du gune batzuetan eta nekez eusten dio zutik, agian zuzen zeuden gidari enpresakoak giroa okertuko zela esatean. Elurra ere ari da jausten, elur bustia lehenbizi eta dezenteko malutak mara-mara gero, ikusmena are gehiago zailtzen diotenak. Haatik, gizonak aurrera darrai tinko, bideari segitzen badio galduko ez delakoan, nahi izatera gibelerantz jo baitezake utzitako lorratzari itsatsita abiapuntura bihurtzeko, kristal lauaren antzeko zoru hormatuan kranpoi eztenek lagatako zulo txoak atzematea arrunt gaitza izango litzaiokeela jabetu gabe. Edozein kasutan ez du kanpalekura agudo bueltatzeko asmorik, hango apopiloen behako isekarien itu bilakatzera, nekatuta eta baldar sentitzen den arren. Eta han doa mendizalea, poliki baina tai gabe gorantz, kranpoiak eta pioleta gogor iltzatuz izotzetan, hatsanka, kosta lain kosta gainalde batera ailegatzeko tematuta, natura lakarrarekin deman, harrapatu duen bisutsaren erruz bidegabatu dela konturatu barik, eta aurki berrehun metroko erorketa hilgarria eragin diezaiokeen trokaren ertza zapalduko duela usnatzeke.

Amaiera

Ermuko Udal Liburutegia / Biblioteca Municipal de Ermua